

2. SEGMENTAZIOA:

Irizpide geografikoak:

Produktu edo zerbitzu hau bai hirian bai herrietan erabilgarria da, izan ere zerbitzu honek WiFi edota mugikorraren WiFi-arekin funtzionatu daiteke. Egia esan hobeto funtzionatzen du hirietan herrietan baino, hirietan estaldura gehiago eta hobeto dagoelako.

Zerbitzu hau lehenengo, Espainiar estatuan erabiliko da, izan ere hor, teknologia aurreratuak dituzte (mugikorrak, ordenagailuak, tabletak...), zerbitzu hau erabiltzeko garrantzitsua gailu teknologiko bat izatea baita. Geroago, enpresa garatzen denean Europa osora zabalduko da.

Irizpide demografikoak:

Gure aplikazio 12 eta 35 urte bitarteko kirolarientzat da, baina helduagoa izanez gero ere erabilgarria da kirolaria bazara. Generoa ez da garrantzizkoa, bai emakumeak bai gizonak erabili ahal dute. Erljioak eta arrazak ez du garrantzirik, edozein erlijio edo arraza izanda erabili ahal duzu. Lanbide jakin bat ez da beharrezkoa aplikazio erabiltzeko, erabili ahal duzu nahi duzunean, orduan denbora asko ez izatea ez da arazo bat.

Bestalde, gure enpresak beste aplikazio bat eskaintzen du hirugarren adineko jendearentzat. Aplikazio honen helburua bakardadea saihestea da adin honetako pertsonetan, beraz, generoa, erlijioa, arraza ez dute eraginik. Aukera hau oraindik garatzeko prozesuan dago, izan ere, hobekuntzak gehituko ditugu.

Irizpide psikografikoa:

Kirola gustoko izan behar duzu gure aplikazioa gustoko izateko; gainera irekia izatea edo ez, ez du garrantzirik jendea ezagutzeko eta haiekin hitz egitea oso erraza denez, baina irekia izateak laguntzen du jarduera hau errazten. Ideia politiko jakinik ez dira izan behar, ez dute garrantzia.

Irizpide sozioekonomikoa:

Aplikazioaren erabilera ez dago mugatua zure errentara ezta diru-sarrerei, hau da, ez du garrantzirik zein maila sozioekonomikoan zauden. Aldiz, aplikazioan abantailak eskuratzeko gastu batzuk egin beharko dira, baina funtzionamendu orokorra (abantailarik gabe) eduki ahal duzu gasturik jasan gabe. Bizitza-estiloa osasuntsu bat izateko gogoia.